



Herrikideen babesak jaso dute 18/98 auziko inputatuek

VILLABONA ▶ Ekitaldi jendetsua egin zuten atzo Gurea aretoan Olarrari, Txapartegiri eta Egibarri elkartasuna adierazteko

SALAKETA ▶ Hainbat udal ordezkari eta herritarrek bat egin zuten; «epaiketak herri oso bat zigortzea du helburu», esan zuten ▶ 6



Festa giroan, ekitaldiz beterik eta euskara ahoan: Euskararen Eguna

TOLOSALDEA ETA LEITZALDEA ▶ Euskararen Eguna da gaur, baina eskualdeko ikastetxeek atzo ospatu nahi izan zuten, festa giroan, ekitaldiz beterik, eta, nola ez, euskara ahoan. Amaia Agirre, Maialen Lujanbio eta Aitor Mendiluze bertsolarien saioa, kalejirak, dantza emanaldiak, irratsaioak, euskal jolasak eta kantak, Txan magoaren emanaldia, ikus-entzunezkoak, gaztain jatea... Denetik izan

zuten, euskaraz gozatzeko eta euskararen erabilera sustatzeko. Gaur, Areson egun berezia prestatu dute, askotariko ekintzekin. Astelehenean, berriz, Villabonako Jesusen Bihotzeko ikastolako txanda izango da. Bestalde, Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak *Enpresan, Bai Euskarari* kanpaina jarri du martxan, lan munduan euskararen erabilera sustatzeko. N. LATABURU / I. TERRADILLOS / HITZA ▶ 4-5

MERCATARITZA ▶

NEREA LIZARTZA

Amak bultzatuta hasi zen Iriarte ahizpetan zaharrena, Mari Kruz, egun Korreo kalean ixtear duten lentzerian lanean. Denbora gutxiren buruan hasi zen honen ahizpa lanean, Margot, alegia. Azkenik, urte batzuk beranduago hirugarren ahizpa, Kilka, hasi zen. 1958an hartu zuten Iriarte ahizpek transferentzia egun duten denda. Hasierako urteetan alokairuan egon ziren eta aurreko jabeek zuten izena, Aizpurua, mantendu zuten urte horietan zehar. Ondoren, 1977an, erosi egin zuten eta, euren abizenaren omenez, Iriarte izena jartzea erabaki zuten.

Denda erosteko jabearekin egin zuten tratuarekin batera, hamabost egunetan zehar emakume batek saltzen erakutsiko zietela hitzartu zuten. Izan ere, oso gazteak izateaz gain, ez zekiten nola gobernatzen zen denda bat. Salgai gauza gutxi zeuzkaten arren, saltzen jakitea beharrezkoa zuten. Denda klasiko bat zen; horregatik, faxak eta bularretakoak, esaterako, neurrirra egiten zizkieten bezeroei.

Garai hartako Iriarte lentzeriak «egun duenarekin konparatuz gero, itxura desberdina zuen» azaldu dio HITZARI Mari Kruzek. Tamainaz orain denaren erdia baino txikiagoa zen, eta Alde Zaharreko dendetan ohikoa zen legez, dendaren atzealdean bizi ziren; bi logela, egongela, sukualdea eta bainugela nahikoa zituzten hirurak bizitzeko.

19 urtez errentan egon ostean, 1977an erosteko erabakia hartu zuten. Honekin batera, obra egitea erabaki zuten eta, Mari Kruz Iriartek azaldu duen bezala, «denda ezezaguna gelditu zen, guztiz aldatu genien zuen itxura». Erreforma aprobetxatuz, dendari egitura berezia ematen saiatu ziren, ordura arte oso leku gutxitan ikusita bezala, mostradorerik gabeko denda egiteko erabakia hartu baitzuten. Detalle hori izan da, beste hainbatetan artean, denda hau bereizgarri egin duena. Obra egin zutenean dendan bizitzari utzi eta pisua hartu zuten Tolosan.

Bezeroak

Bezeroa gustura uztea gustatu zaie beti; hori ederki islatzen zen hauekin izan ohi zuten harremanean. Bezero finkoak eta noizbehinkakoak uztartuz atera dute aurrera negozioa urte hauetan guztietan. Bezero batzuk denda ireki zutenetik mantendu dituzte. Hauek aspaldiko lentzeria erabiltzera

47 urteren ostean, agur

1958an hartu zuten Iriarte lentzeria abizen bera duten duten ahizpek; egunotan behin betiko itxekotan dira erretiroa hartzen dutelako



Azken hilabeteotan Iriarte lentzeriak izan duen itxura; arropa guztiak beherapenekin izan dituzte, ixterako saldu nahi baitzituzten. NEREA LIZARTZA



Denda hartu zutenean, duela ia berrogeita hamar urte, lentzeriak zuen itxura. HITZA

ohituta zeuden. Esaterako, duela berrogei urteko faxak erabiltzen ohituak zeuden batzuk; egun horrelakoak aurkitzea erraza ez denez, artisautza lantegietan erosten zituzten. Horrela, hasiera-hasieratik mantendu dituzten bezeroak gustura edukitzen saiatu dira.

Bestalde, «konponketa asko» egiten zizkieten saltzen zituzten arropoi, bezeroaren gorputzera ahalik eta egokien moldatzeko beharrezkoak ziren guztiak egiten baitzituzten. Moldaketa horiek, bularrekoe-

tan, faxetan edota bainujan-tzietan egiten zituzten, besteak beste. Gainontzeko sektoreetan bezala, lentzerian ere boladak aldatzen joan dira; aitzina-ko faxekin batera, tangak eta antzekoak ere saltzen aritu baitira. «Modara egokitu beste erremediorik ez dago».

Kompetentzia

Negozioarekin hasi zirenean, Tolosan ez zeuden letzeria saltzen zuten denda asko; alde horretatik nahiko aurreratua

izan zen haientzat, garai hartan Aizpurua denda zena transferentzian hartzea.

Hala ere, urteetan aurrera egin ahala, gisa honetako arropak saltzen dituzten dendak gehitzen joan dira eta, honekin batera, kompetentzia handitu egin da. «Beti izaten da gainera kompetentziaren itzala», azaldu dute hirurek. Horri aurre egin nahian, gainontzeko dendetan saltzen ziren marka eta produktu berak ez saltzen saiatu izan dira beti. Hala ere, kasu askotan ekidin ezina iza-

ten zen gainontzeko dendetan saltzen zituzten modeloekin bat egitea.

Bestalde, gainontzeko herrialdeetako modak jarraitzeko, atzerri bizzahiru bidaia egiten zituzten urtero. «Kanpoko tendentziak kontuan izatea oso garrantzitsua da», adierazi dio HITZARI Mari Kruzek. Bidaia horiek aprobetxatu ohi zituzten, ahal zuten neurrian, atzerriko boladak Euskal Herrira ekartzeko.

Azken egunak

Erretiroa hartzen dutelako erabaki dute hainbeste urtetako lanari eta esfortzuari amaiera ematea. Lentzeriak duen erakargarritasunagatik «pena ikaragarri» daude itxeko ordua iritsi delako. Hala ere, bezeroek maitasun ikaragarria erakutsi diete, eta bukaera «ederra» izaten ari dela azaldu dute dendaren jabeek.

Berrogeita zazpi urtek pasadizo asko utzi dizkiete Iriarte ahizpei; batzuk gozoak eta beste batzuk, berriz, gaziak. Nolanahi ere, oroitzen ikaragarri buruan eta bihotzean gordeta, egunotan behin betiko itxiko dizkiete atea Korreo kalean hain ohikoa eta berezia den lentzeriari.

POLITIKA ▶

Justizia osoz

Tolosan jaio eta Mexikoko erbestean hil zen German Iñurrategi epailearen oroitzapenak batzen dituen liburua, Eusko Jaurilaritzaren eskutik



Iñaki Anasagasti, Arantxa Iñurrategi eta Joseba Azkarraga, *Al servicio de la Justicia en tiempo de guerra* liburuarekin. JUANAN RUIZ / ARGAZKI PRESS

LUIS KARLOS GARCIA-BERRIA

Sanferminetako ajearekin zebilen, oraindik, Iruñean bertan. 1936ko uztailak 13 zituen. «Pozik nengoen ni, festak igaro eta gero. Eguerdian etxera hots egin nuen telefonoz, eta amak zera bota zidan: 'Zoaz, zoaz etxera agudo!'. Arrazoia galdetu zion German Iñurrategi tolosarrak. Amak, ordea, ez zion eman: «Ez galdetu ezer eta segi! Eta hots egin heldu bezain pronto!». Guda hotsak zebiltzan airean.

Iñurrategi epaile eta fiskala zen sasoi hartan, eta Eusko Jaurilaritzako Justizia sailleko funtzionarioa; Manuel de Irujoen kolaboratzailea zen. Horregatik, gerran justiziaren administrazioan hark egindako lanak bildu ditu Iñaki Anasagasti politikari jeltzaleak, Iñurrategi-aren beraren oroitzapenetan oinarrituta, Jaurilaritzak argitaratu duen liburuan, *Al servicio de la Justicia en tiempo de guerra* izenburupean.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren sailburu Joseba Azkarragaren esanetan, «Iñurra-

tegi Justizian sinetsi zuen, justiziarik eza arrazoitzen duen ideologiari ez dagoea jakitun. Eta hori ez da gutxi, hain justu ere, bizitza politikoa-aren judizializazioa ohikoa den eta justiziaren zuzentasunaz zalantzan dagoen garai honetan».

Gerra garaiko urteak ez dira samurrenak izaten justizia administrazioan dihardutenentzat. Haatik, Iñaki Anasagasti-aren aburuz, oro har, «epaiketa justuak egiteko baldintzak» izan ziren Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan 36ko gerran.

Euskaldunen epaiketak

Alemaniano kontsul Guillermo Waconingen adibidea gogorazten du liburua. Suihak berak atxilotu zuen Getxon (Bizkaia), Frantzia aldera itsasontzia hartu behar zuenean, Francoren alde espia aritzea leporatuta. «Prozesua eredu-garria izan zen. Horrelaxe aipatu zuen prentsa osoak. Baita auziperatutako defentsak berak ere», idatzi zuen German Iñurrategi berak oroitzapenetan. Alemaniarrak epaiketaren erdian zigarro bat erretzeko

eskatu, eta, hasierako ezetzaren ondoren, baiezkoa eman zitzaioela kontatu zuen.

Tolosarrari buruzko liburuak balio historiko handiko pasarteak ditu. Adibidez, Anasagastiaren arabera, Jose Ariztimuño Aitzol zenaren atxiloteta nola gertatu zen deskribatu da lehen aldiz.

Baina gerra garaiko arazoe-tatik haratago doa lana. Esaterako, Getariako (Gipuzkoa) arrantzale Francisco Idiakezzen kasua dakar. Zinpekoek 30 urteko kartzela zigorra ezarri zioten gizon bat hiltzea leporatuta. Arazoa zen zinpekoak, euskaldun peto-petoak, zeharo nahastu zirela gaztelaniazko epaiketan.

Kafe saltzaille, Mexikon

Euskal Herritik hanka egin eta Frantziara joan behar izan zuen ihesi German Iñurrategi. Hortik, 1942an, Mexikora. «Mexikora heldu eta abokatu gisa lan egiteko asmoa zeukan», gogora ekarri du Germanen alaba Arantxa Iñurrategi, «baina ez zuen modurik topatu, ustelkeria egundokoa zelako». Berak, gogoan, zeregin argia zuen: Eusko Jaurilaritzari eustea, erbestean egonda ere. Halaber, idazteari ekin zion, eta, besteak beste, Telesforo Monzonen *Urrundik* liburuaren itzulpena egin zuen.

Dirua lortzeko, kafea saltzen zuen denda zabaldu zuen. «Alabaina, aitaren benetako irrika zen Euskal Herrira noizbait itzultzea», gehitu du alabak, hunkituta. Aita beti «herri-min gorriak» jota ibili zela gogorarazi zuen. «Baina alabok maiz Euskal Herriari buruz galdetu eta ezer gutxi kontatzen zigu...». Erantzunik ez. Germanek berak gerra hasi baino bost egun lehenago etxera hots egin zuenean bezala.

hitza

lagunen
txokoa

▶ HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzuzure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratuko dute; deitu 943 30 43 46 telefono zenbakira

Egin zaitez harpidedun!

DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTAILEAK DIRA

Avalon
o s a g a i a k
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

honekin
TOLOSA
Tel.: 943 67 22 44

kanikak
San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 945 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

SHANTI KIROLAK
Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

MUGAR
Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAREN harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

EUSKARAREN EGUNA ▶

Euskara lau haizeetara

Gaur da Euskararen Eguna, eta honen harira makina bat ekitaldi antolatu zituzten atzokoan eskualdeko ikastetxe askotan; gaur Areson askotariko ekintzak izango dituzte, euskararen alde



Ibarra. Lujanbio eta Mendizuze bertsoariari hainbat galdera egin zizkieten Uzturpeko ikasleak. I. TORRALBA



Villabona. Arroako gazteboek Xavi Irratsaioa eskaini zieten ikasledeiei. NEKILA LABAURU

L TERRAOLLOS N. LABAURU

Gaur Euskararen Eguna da Euskal Herriko txoko guztietan. Egun honen harira, hain zuzen ere, eskualdeko hainbat eta hainbat ikastetxe askotariko ekitaldiak antolatu zituzten aitzakien artean. Mezuak, guztietan, bakarra izan zen: euskararen erabilera sustatzea, alegia.

Hitzetik hortzera erabili zuten gure gartekoek euskara, bereziki atzokoan. Villabonako haurtxoek, esaterako, goizean goizean zuten euskararen aldeko ekitaldiak. Fleming eskolan Amasa Agirrek jaialdia aurkeztu zuen artean, gazteboek Xavi Irratsaioa eskaini zuten. Bien bitartean, euskal jolasak, bertsoak, kalejirak, dantza emaldiak eta abes- tiak eskaini zituzten gartekoek, euskal musika bogzorailuetatik gogor jotzen zuelarik.

Iharrak Uzturpe ikastolan ere beres egin zuten. Maitalen Lujanbioaren eta Altor Mendizuzeren bisita izan zuten, eta ikasleek bertsoariaritzaz ziztuzten zientziaz argitu aldera makina bat galdera egin zizkieten. Hala, ber, ikasle nahiz bertsoari, hainbat bertso abestu zituzten. Bertso saioaren ostean jolaserako tartea ere izan zuten gazteboek, gurasoekin eta irakasleekin batera.

Iruako eta Anoetako ikastolen kasuan bat egiten hainbat ekitaldi antolatu zituzten. Horien artean logopon aukeraketa egin zuten, eta ikastolatik azaldu duten bezala, «euskararen inguruan identifikatuko gaituen logoa izango da». Logo hori handian marraztu zuten ikastola apantzeko, eta pegatina modukoak ere egin zituzten denek itasateko.

Bestealde, Tolosako Hirukide ikastetxean ere ekitaldi ugari

izan zituzten. Batetik, Jon Garmentien eta Iñaki Plaza euskal instrumentuen inguruan jardun zuten ikasle batzuekin; tartean, beste batzuk jolasen aritu ziren patioan euskal abes- tiak kantatuz. Jaialdia eta euskal jolasak ere izan zuten arratsaldean.

Samaniego ikastetxean abes- tiak eta jolasak izan zituzten goizean, eta arratsaldean biata berezia jaso zuten bertako ikasleek. Izan ere, Txan magoak, emanaldia eskaini zuten, gazteboen gozamenarako.

Laskorin ikastolan, bertze, gaztari jalea egin zuten arratsaldean hotzari aurre eginez. Ez zen hori, ordea, euskararen harira egindako ekitaldi bakarra. Besteak beste, euskal jolasak, ikus-entzunezkoak eta abes- tiak izan zituzten.

Gaur, bertze, Aresokoan

Lanean ere euskaraz

Euskararen Gizarte Erakundearen Egunaren mezu zehatz bat zabaldu nahi du: lan mundua eskualdun du behar dugula. «Gure egunerokotasuna eskualdun du behar dugula, eta horretarako lanean ere euskaraz egiteko aukera izatea ezinbestekoa da», adierazi du Kon- tseiluako idazkari Nagusi Xabier Mendigurenek.

Kontseiluak lan munduak aurreapauso bat eman dezan Euzkoan, Euzko Herriko 1.300 enprestan Bai Euskarari Zuzargarri buruzko informazioa zabaldu du. «Bai Euska-

rari Zuzargarriaren bitartez enpresek neurri zehatzak hartu eta euskararekiko konpromisoa adierazaren diote gizarte osoari», azaldu du Mendigurenek.

Euzkoan, Euzko Herriko 1.300 enprestan Bai Euskarari Zuzargarri buruzko informazioa zabaldu du. «Bai Euska-

KOMUNIKABIDEAK ▶

Eskualdeko lau telebista kate izateko lizentziak banatuko dira

Jauriritzak emango ditu eta dekretuaren zirriborroan ez da arautu euskarar hutsuko kateak

ERREDAKZIOA

Eusko Jauriritzak 2006ko urtarriaren tokiko telebisten legegionari onartuko asmoo du eta atzo, Gasteizen, Miren Azkara te Kulturaz sailburuak dekretuaren zirriborroan arautu zuten. Horren arabera, EAE

hamabost eremu markatu ditu Jauriritzak: Araban bi, Bizkaian sei eta Gipuzkoan zuzen. Tolosaldea da Gipuzkoako eremu- muetako bat. Bakoitzean, gehienez, lau izentzako banatuko dituzte. Lehiaketan 2006ko uda aldera ateratzeko asmoo daska.

Zirriborroaren arabera, lau kate horietako bat publiko izateko aukera dago, «baina betiere udal bakortzak onartu egin behar du kate hori raut dudelarik». Hizkuntzari dagokionez, Jauriritzak euskara hutsuko eskaintzen aldetik jar- raiz hartuko du lehen- tzean. Kulturaz sailburuak esan zuenez, «edo, kasuan- kasuan, ezarritako gutxieneko gaitz- tzen duten aldetik jar- raiz». Dena dela, dekretuaren zirriborroan ez da aratu lau kate horietatik bati ere euskarar hutsuko izan behar duenik. Udalen balizko kateak pro- gramazioaren erdia euskaraz egin behar du eta besteak tokiko erre- alitate sozio- lingo- istikoaren arabera. Kate guz- tiak, berrera, programazio propioa lau ordu eskaini behar duzute —hor barruan, al- bistei lokalki— eta asteen 32 ordu gaitzenez.

Oraingoz, EAEko hamasei udal- kate egin dute izentz eska- era, baina lehiaketak aurretik bertze eskatu behar duzute. Tolosaldeko eta Leitzaldeko Bi- tzar- en enpresa telebista loka- len gaitz arretan ari da, eta, bak- tze- ko zeregin.



Villabona. Fleming Arratsango ikasleak ere aritu ziren euskararen alde. Hainbat jolas egin zituzten goizean: argazkari, ikasleek elkarri helduta patioaren inguruan, abestuz. «104

Iragarki laburrak ▶

SALON Motora: KTM EXC 250 endurakoa. 2005koa. Marrazketa. Eguna onak. Data: 639 25 45 60 helbete zehatzak. Auzo: Iritzi bidea 104. Nafarroa bidea: 943 11 71 60.	Auzo : Renault Space. Motora: 2.000 DCL. 2001koa. Data: 649 89 98 03 zehatzak. LINEA Zerbitzua : Tabernako zerbitzua behar du Amatsen. Eguna onak: 943 69 12 10. Supermerkatoa : Promozional eta apak	betezko portonak behar ditugu supermerkatoan behar egiteko: 666 55 79 10 Saldutaria : Neska saldataria behar da, karta eta menua esportatuz. Eguna onak: 943 61 52 93.
--	---	--

hilberriak eta urteurrenak ▶

ESTEBAN ARZALLUS LIZARRALDE
JAUNA

Azto hil zen 64 urte zituela. Elizkoak eta Aita Santuaren bidetara bidaltzeko ardurak onduen.

«Gure» loper

Haren azal arrebak: Jose Luis eta Juanito Murgika, Juan Mari (II) eta Cristobal Murgika, Jose Mari eta Inesona Alvarado, Patsi eta Jorgo Oyarzabal; etxeko ikasleak: Jose Luis, Korta, Austri, Joseba, Lurdes, Leren, Loreto, Jai eta Eneko; gainerako ikasle guztiak, lehenagotik eta geroago alabaak.

Haren onaitzaren alde ondu bat ezarri zen dibute eta amen eta zabaldu GURU, LARUNBETA, arratsango ZAPARRITAN, AMA BIRUA, ARGONDUKARREN eta beste onduen inguruan. Aldeak aurretik, mila eskas.

«Gure» Gurea Zuzenaren Tantearen izena da. 11/11/06.

ERRETERIAN, 2005eko abuztuaren 30an
Helduak: Berta, berrera, Zuzen eta beste.

hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio berogotik

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira

Tel.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko hitza.info

18/98 AUZIA ▶

Herrikideen elkartasuna jaso dute 18/98 auziko eskualdeko inputatuek

Joxe Mari Olarra billabonatarrek, Nekane Txapartegi asteasuarrak eta Mikel Egibar zizurkildarrak Gurea aretora bildutakoen babesa izan zuten



Inputatuak, elkarteetako eta udaletako ordezkariak eta herritarrak, atzo, Villabonako Gurea aretoan. I. GARCIA

JOXE MARI OLARRA ▶ 18/98 AUZIAN INPUTATUA

«Iritzi publikoa erabat alde daukagu»

Joxe Mari Olarra billabonatarra da 18/98 auzian inputatuta dagoen eskualdeko herritarretako bat.

Nola doa epaiketa orain arte? Kafka gutxietsiez doa epaiketa. Esan beharra dago gure ustez epaimahaia urrutitik gidatuta dagoela, egoera tentsionatzen ari da izugarri, eta nolabait beraien helburu nagusia dela giro politikoa guztia kendu eta bakarrik bere eskema juridiko horretan sartzea. Guk justu kontrakoa ikusten dugu eta hor ematen ari da izugarritzko txokea, nahiz eta argi daukagun, zorionez, Euskal Herriko iritzi publikoak argi ikusten

duela hori eta ikusten duela zer nolako iraina jasotzen ari garen.

Epaimahaia ebatzi du inputatu guztiek epaiketa guztian zehar egon beharko duzuela. Gure abokatuen eta epailearen artean printzipioz hitzartuta zegoen hori ez zela horrela izango, baina epaiketa hasi eta segituan kontrakoa esaten dute. Beraien postura gogortzea da eta gu izorratzea ekaritzen du horrek, plano ekonomikoan eta lan mailan.

Zer eragiten dizue astero Madrilera joan beharrak?

Normalean igande gauean ateratzen gara eta ostegun

goizean iristen gara bueltan. Hasieran komentatzen zen sei hilabete iraungo zuela epaiketak, baina orain ikusten dugu dezente gehiago iraungo duela. Plano humanoan izugarritzko esfortzua da eta nekea izugarria da. Nik, adibidez, ez dut autobusean lo egiten inoiz, eta pasa ditut ia hiru gau astero-astero lorik egin gabe. Lan mailan pentsatu zer desastrea den. Ekonomikoki kalkulatu dugu lehenengo hiru-lau hilabetetan 80 milioi pezetan izango dela. Hori bikoizten bada, gehiegikeri bat da.

Herritarren babesa jasotzeak zer suposatzen dizue?

Guretzako benetan pozgarria da. Handik etortzen garen bakoitzean hemen izugarritzko babesa dugu eta iritzi publikoa erabat alde daukagu. Horrek ematen du indarra. Esan dezakegu momentu honetan Madril gurekin desgaste politika ematen ari dela. Guk jasotzen dugun babesa eskertzekoa da eta indarrak ematen dizkigu. Eta nik uste dut gai izan behar dugula, neurri batean, ez gurekiko epaiketa izatea, baizik eta Euskal Herriaren kontrako epaiketa izatea. Guk ahalagun guztiak egingo ditugu han duintasuna eta indarrak mantentzeko. ◀

Olarra eta Txapartegi izan ziren mahaian. Adunako Udalak eta Txulobi eta Muxkil elkarteek ere babesa eskaini diete inputatuei.

Astero haiek bizi duten egoera nabarmendu zuten. «Egunotan maila pertsonalean bizitzen ari diren zigorra, Madrilera bidaiari amaigabeak, egoera gogorrak, eraso ekonomiko izugarria... Ez da soilik euren pertsonari ezarri nahi dieten zigorra, baizik herri honek herri bezala aurrera egiteko duen nahia eta desira zapuzteko beste saio bat baino ez. Horretan ari dira, temati». Auzia bera ere hizpide izan zuten: «Gaur Joxe Mari, Nekane eta Mikel dira, beste 56 lagunekin batera. Bihar euskarazko egunkariak egiten dituztenak izango dira, presoen eskubideen alde lan eskerga egin dutenak hurrena... Epaiketa haiek pertsonak zigortu baino proiektuak eta herri oso bat zigortzea dute helburu». Babesaren zergatia gaineratu zuten: «Hemen bildu gara esateko zuekin gaudela, eta herri honetan benetako demokrazia eta bakea ekarriko duen eskenatoki politiko berri bat behar dugula. Horretan jardungo dugula buru-belarri, epaiketa guztien gainetik. Ez dugula honelako epaiketarik behar, ez espertxerik ez dispersiorik ere. Herri honek benetako ekimenak behar ditu». «Begi onez ikusten dugu PNV, EHAK, EA, EB eta Aralar alderdiek aurrera atera herri duten akordioa, bertan jazarpen politiko eta judiziala amaitzeko eskatzen baitzaie Espainiako erakundeek», azaldu zuten.

Antolatzaileek dei zabala egin zuten «epaiketa honen aurrean herritarrek euren jarrera tinkoa eta haserrea ager dezaten», eta hilaren 16an, 19:30ean, Villabonako plazatik abiatuko den manifestazio isilean parte hartzeko eskatu zuten, «auzipeuei gure babesa helarazi eta epaiketa honen benetako helburua zein den agertzeko».

ZUZENKETA ▶

Eusko Jaurilaritzako Kultura sailak euskarazko hedabideak sendotu, garatu eta normalizatzeko 2005ean eman dituen diru laguntzen albistea eman zuen HITZAK abenduaren 1ean. 2004an euskarazko hedabideek Jaurilaritzatik jasotako kopuru zuzena 3.784.134 eurokoa da. Beraz, euskarazko hedabideek aurten iaz baino 15.866 euro gehiago jasoko dute; hala ere, TOLOSALDEKO eta LEITZALDEKO HITZAK iaz baino 29.925 euro gutxiago jasoko ditu.

iragarki laburrak ▶

Garbitzaileak. Lan finkoa: eraikin publikoak, ikastetxeak, ospitaleak. Astelehenean ostiralerara, 08:00etatik 15:00etara. Informa zaitetz. 943 31 37 82.

Gidariak. Aldundian behar dira. Behin betiko kontratua. Informa

zaitetz: 943 31 37 82.

Urgentea. Haur zaintzaileak behar dira, Haur Eskoletako hezitzaileak.

943 31 37 82.

Ohar garrantzitsua. Ezintasun fisikoren bat badaukazu, lor ezazu postu finkoa. %5 erreserbatua. Doako

informazioa ondoko telefono zenbakian: 943 31 37 82.

Suhiltzaileak, udaltzaingoa.

Udaletarako lanpostuak. Informazioa doan 943 31 37 82.

Administrari laguntzaileak.

Lanpostuak udaletarako. 1.200 euro.

Lanaldia: astelehenean ostiralerara, 08:00etatik 15:00etara. Informazioa doan. 943 31 37 82.

Laborategia. Lanpostuak: teknikoak, ikertegiko laguntzaileak, Eusko Jaurilaritza. Informazioa doan 943 31 37 82 telefono zenbakian.

TOLOSA ▶ UDALA

Libre larratutako ahuntzen jabeei deia egin die Udalak

Tolosako Udala libre larratutako ahuntzen ugalketa azkarra dela eta, eta berezko baso eta sastraketa nahiz landatutako baso gazteetan eragiten dituzten kalteak kontuan izanik, behartuta ikusi da dei larri hau egitera, bando baten bidez: «Ahuntzak libre darabiltzaten baserritar, ganaduzale nahiz bestelako ahuntzajabe guztiei jakinarazten diegu hamabost eguneko epean (azaroaren 29tik aurrera) animaliak nor bere barrutian sartu edo menditik erretiratzan ez baditu, aske ikusitako ahuntzak hemendik aurrera ehizerako izendatu eta bota egingo direla». Hori egiteko baimena du Udalak, maiatzaren 2ko 28/1990 Foru Dekretuaren arabera.

TOLOSA ▶ TRIATLOIA

Triatloi taldeak bilerara deitu du

Tolosaldeko Triatloi Taldeak taldekideentzako eta taldean aritu nahi dutenentzako bilera deialdia egin du. Lizentzia kontuak eta denboraldi berriari lotutako asmoak eta konpromisoak jorratu dituzte bertan. Gaur izango da, Kultur Etxean, 13:00etan.

ANOETA ▶ MENDI ASTEA

GPSarekin orientatzeko ikastaroa

Hilaren 13an kokatze sistema orokorraren GPSaren funtzionamendua deskribatzeko ikastaroa antolatu dute. 19:00etatik 21:00etara. 15ean eta ordu berean ibilbidearen plangintza eta analisisirako GPSa ordenadorearekin erabiltzeko erakutsiko dituzte. Zalantzak ere argitu ahal izango dira. Joaten direnen maiaren arabera banatuko dira taldeak. Antolatzaileek GPSa izatekotan bertara eramatea interesgarria litzatekeela azaldu dute.

ANOETA ▶

Podologoaren bisita izango dute Alkartasunan

Naiara Ortega podologoaren bisita jasoko dute Alkartasuna Biltokian hilaren 7an, 14:45etik aurrera. Etzi arte aukera dago izena emateko. Alkartasunako kideek 11 euro ordaindu beharko dute, eta besteek 14 euro. Bestalde, bihar, 18:30etik aurrera, dantzaldia izango da Biltokian, Los Incansables txarangaren musikarekin. Bartzordeak kide guztiak animatu ditu parte hartzera.

ARESO ▶ PILOTA

DV pilota txapelketako finalurrean ariko da Olazabal

Datorren asteartean Tolosako Beotibar pilotalekuan DV-k antolatzen duen eskuz binakako txapelketaren finalurrea jokatu du Mikel Olazabal aresoarrak, Jauregi bikote duela, 11:30etik aurrera, jaialdiko bigarren partidari. Olaetxea-Apraiz izango dituzte aurkari biek.

TOLOSA ▶

Pilota partidak Beotibarren jokatu ezinik

Haserre agertu dira Aurrera Saiazeko pilotariak eta bertan murgilduta daudenak: txotxongiloak direla eta, Beotibar pilotalekua ezin da pilotan aritzeko erabili. «Kontuan izan behar da finalurreko partidak daudela, eta hauek ere garrantzia badutela. Nolabait ere, pilotari ez zaio honakoan dagokion garrantzia eman», Luis Galarraga delegatuak adierazi duen bezala. «Tamalgarria» iruditzen zaio.

TOLOSA ▶ UDALA

‘Egunkaria auzia’ artxibatze eskaria

Tolosako Udalak egindako azken osoko bilkuran, *Egunkaria auzia*-ren aurka mozioa aurkeztu zuten EAJk, EAK eta EBk, auzia artxibatze eskatuz. EAJren eta EAren botuekin aurrera atera zen mozioa (EBko ordezkaria ez zen udalbatzarrean). Aldiz, PP eta PSE-EE abstenitu egin ziren.

IKAZTEGIETA ▶ KZGUNEAK

KZguneak abendua planifikatu du

KZguneak abenduko bisita egunak antolatu egin ditu, eta hauek dira tutoreak emango dituen mintegiak: 12an, 09:00etatik 13:00etara. Horren barne, 10:00etatik 12:00etara *Euskal Herriko nekazal munduan* mintegia izanen da. Hilaren 29an, eta ordu tartean, *Foroak eta Faq* gaia landuko dute.

AMEZKETA ▶ POLITIKA



San Martin kanpan dagoen mapan GR-20a ikusgai. NEREA URBIZU

Abenduaren 6an lan egiteko deialdia

Goizetik «lanerako deia» egin du ezker abertzaleak, herria txukuntzeko

NEREA URBIZU

«Abenduaren 6a euskaldunontzat jai egun arrotza inposatu zaigulako», Amezketa ezker abertzaleak antolatutako ekimen bereziak antolatu dituzte egun horretarako: beraien beharrak antolatu eta burutzea da asmoa, kaleak txukunduz, esaterako. 09:00etan plazan biltzeko deia egin du, hala, ezker abertzaleak, Arretxetik San Martinera doan GR-20aren bidea garbitzeko.

Hurrena, Lizeatik Urzabalerako bidea garbitzea izango da, bide hau herritik Larraitze-

ra joateko aukera ederra eskaintzen duela kontuan izanik. Zazpi Iturri elkartearen bazkaria egiteko asmoa dute, baina horretarako 12:00ak aldera presatzen azaldu beharko da jendea. Euskal Curriculumaren inguruko solasaldia eta hausnarketak egin bitartean kafea hartzeko gonbitea luzatu dute, halaber.

19:00etan, Durangon, Bai Euskal Herriari herri ekimenak deituta eta *EHNA eskuan Euskal Herri osoan* lelopean izango den manifestazioarekin bat egitera ere animatu dute.

TOLOSALDEKO eta LEITZALDEKO HITZAN

salgai

Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalerako:

- sarrerak
- autobuserako txartelak
- bazkarirako txartelak



hitza

ARAMBURU
Salgai (Tolosa). Pisua igogailuarekin Larramendi kalean 112m2. Bisita zoragarriak.
Salgai (Tolosa). Pisua Belate ibiltokian. Bisita zoragarriak, sartzeko moduan.
Salgai (Tolosa). Lokal komertzialak Nagusia kalean eta Belate ibiltokian.
Salgai (Ibarra). Pisua San Inazio auzoan. Guztin berria, 244.000 euro.
Salgai (Tolosa). Pisua San Frantziskon, 126m2. Garajearekin.
Salgai (Tolosaldea). Garajeak leku ezberdinetan: Ibarra, Batxilerr Zaldibia kalean, Plaza zaharra...
Alokatzeko (Tolosa). Lokal komertziala Eremuntan kalean.
Alokatzeko (Tolosa). Garajea Pedro de Tolosa kalean, Araba Etorbidean...
943 65 17 13 / 677 46 09 16

Egurrezko leihoak, kontraleihoak, atek eta eskaileak neurria

ZUHATZI
Zurgindegia

JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ

Tel.: 943 67 36 11 • Faxa: 943 67 36 55
"Cuatro vientos" Industrialdea, 1 Txarama auzoa • 20491 Leaburu

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko abenduaren 3a, larunbata ▶ III. urtea

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

13

hotzena

10

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



ELURRA ARALARREN



Guardetxe:



gaur: bai / bihar: bai

Pagomari:



gaur: bai / bihar: bai

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA

(zalantzak argitzeko, harpidetuen egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Amezketak. Gazte Taldeak antolatuta, babarrun jatea egingo dute bihar. 12:30ean hasiko da festa, triki bertso poteoarekin, Errekaldetik abiatuta; 14:00ak aldera, babarrun jatea Zazpi Itturri elkartearekin, Jokin Uranga eta Xabier Silbeira bertsolariek girotuta; bazkal ostean, autobusa jarriko dute Hernanira, han festa jarraitzeko. Txartelak salgai daude herriko tabernetan, 21 eurotan.

Anoeta. Anoetarrok Auzolanean plataformako kultura taldeak Kalderero Eguneko dantza soka martxan jartzea erabaki du berriro, izazko arrakasta ikusita. 2006ko hilaren 18an izango da. Parte hartu nahi duenak Itzuli tabernan dagoen zerrendan eman behar du izena, abenduaren 14a baino lehen. Egun horretan, hain zuzen ere, izango da lehendabiziko entsegua, 19:30ean, Edurkan. DBH1etik aurrerakoek eman dezakete izena.

Larraul. 15:30ean, Mus Txapelketa, Katillubulo elkartearekin; 17:00etan, Iraitz ipuin kontalaria *Amona Ximonaren madalenak* saioarekin; 17:00etatik 19:00etara, artisauek eta herriko argazki zaharren erakusketa, museoan.

Tolosa. Tolosaldeko Triatloi Taldeak bilerara deitu ditu taldekideak zein taldean aritu nahi dutenak. Denboraldi berria datorrela eta, lizentzia kontuak aztertuko dituzte. Hurrengo urterako lan banaketa, proiektuak eta egitasmoak ere izango dituzte hizpide. Gaur da hitzordua, 13:00etan, Kultur Etxean.

Zizurkil. Kirol Asteburuaren baitan, *Hamabi orduz kirolean* ekimena. 11:00etan, herri kirolak 5-8 urte bitartekoentzat,



Eguberrietako argiak piztu dituzte

TOLOSA ▶ Ate joka dira Eguberriak. Hala gogorarazten dute telebista iragarkiek, negu giroak, dendetako erakuslehiok... Eta baita kaleko argiek ere. Atzo arratsaldean, esaterako,

Gabonetako argien piztuera ofiziala egin zuten Tolosan, Trianguloan, Gaztelako atearen aurrean, hain zuzen ere. Eguberriak arte, egunero piztuko dituzte aurrerantzean. NEREA URBIJU

Intxaurren; 12:00etan, pilota txokoak, 9-12 urte bitartekoentzat; 13:00etan, hamaiketako eta opari banaketa; 15:30ean, futbol partidak Otaño eskolan; 17:15ean, halterofilia, Otaño; 18:00etan, merienda eta opari banaketa; 22:30ean, Zizurkilgo IX. Gau Krosa.

MUSIKA

Tolosa. Lor eta Biok taldeen kontzertua. 22:30ean, Bonberenean.

TITIRIJAI 05

Tolosa. Kataluniako Valeria Guglietti taldearen *Ez ukitu nire*

eskuak, 16:30ean eta 19:00etan, Gorosabelen; Madrilgo La Canica Teatro de Titeres taldearen *Elefantetxoa*, 12:00etan, Kultur Etxean; Txinako Guandong Puppet Theatre taldearen *Lignango hagaxoen magia*, 17:30ean eta 22:00etan, Beotibar pilotalekuan; eskualdeko Asvinenea taldearen *Bikote orojakilea* lana, 20:30ean, Kasinoan.

ZINEMA

Leitza. Tim Burton zuzendariaren *Charlie y la fabrica de chocolate*. Gaur, 16:30ean; bihar, 19:30ean. Zinema aretoan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Larraia, M. I. Elbarren, 95. 112.
Tolosa. Ebebeste, J. M. Gemniko arbolaren lorategiak, 3. 943 65 10 40.

IRRATIA

Txolarre irratria (107.5, 101.2 FM)
10:30-13:00. *Hitzak hegan* magazina: elkarrizketak, *Mundurako leihoa*, kolaboratzaileak, agenda, porra, disko eskainiak...

Goiko irratria (107. FM)

13:00. *Kornerra* magazina. Posta elektronikoa: kornerra@hotmail.com.

▶ **HITZAK** ez du bere gain hartzen egunkariari adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

GALTZAUNDI ▶



Aldizkaria. Galtzaundi.
Zenbakia. 224.a (2005eko azaroaren 25a).
Orrialdeak. 24.
Tirada. 5.000 ale.
Gai nagusia. *Osasuna zaintzen ote dugu?*
Beste gaiak. Agenda 21 eskualdeko herrietan, Ander Letamendiarekin Txinparta elkartearekin, Ibarra Gaztearen urteurrena, Gazte Topagunea, Titirijai...
Argitaratzailea. Galtzaundi Euskara Taldea.
▶ Nafarroa etorbid., 6-behea.
▶ 943 65 50 04.
▶ galtzaundi@galtzaundi.com
▶ www.galtzaundi.com

AIURRI ▶



Aldizkaria. Aiurri.
Zenbakia. 245.a (2005eko azaroaren 25a).
Orrialdeak. 32.
Tirada. 2.500 ale.
Gai nagusia. Euskara hizpide Xabier Huizirekin.
Beste gaiak. Zizurkilgo Kuttuna Haur Eskola, Amasa-Villabonako dendariaren iritzia obrak direla eta, Larraulgo Kultur Astea, Bertsolari Txapelketa Nagusia, Oinikari dantza taldeak 30 urte...
Argitaratzailea. Manuel Larramendi Kultur Bazkuna.
▶ Kale Berria 47, 3. esk.
▶ 943 69 64 50
▶ aiurri@topagunea.com
▶ www.aiurri.com

AGURRAK ▶

HITZA, zorion agurren tartea
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:
HITZAren egoitzara: Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA Udaletxeko bulegoa - LEITZA
Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!